

URTEKO TXOSTENA

2018

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

Dirección de Economía y Planificación



Munduko ekonomiak hazkunde erritmo garrantzitsu bati eutsi zion...

- 2018an, gaur eguneko hedaldiaren bederatzigarren urtea izan baitzen, **munduko ekonomiak** hazkunde erritmo garrantzitsu bati eutsi zion berriro, **%3,6an zenbatetsi** baita. Tasa hori aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa da eta hurbil dago epe luzeko batez bestekotik (1998tik 2018ra bitartean %3,8 hazi da urtero, batez beste).
- **Herrialde garatuak %2,2** hazi zen eta **garatzen ari diren herrialdeen multzoa %4,5**.
- EAEko ekonomiak 2018an izan zuen emaitza munduko batez bestekoaren zertxobait azpitik kokatu zen, baina herrialde garatuena baino nabarmen hobeagoa izan zen.

BPG errealaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Munduko ekonomia	3,5	3,6	3,4	3,4	3,8	3,6
Herrialde garatuak	1,4	2,1	2,3	1,7	2,4	2,2
AEB	1,8	2,5	2,9	1,6	2,2	2,9
Japonia	2,0	0,4	1,2	0,6	1,9	0,8
Europar Batasuna	0,3	1,8	2,3	2,0	2,5	2,0
- Alemania	0,5	1,9	1,7	2,2	2,2	1,4
- Frantzia	0,6	0,9	1,1	1,2	2,3	1,7
- Erresuma Batua	2,1	3,1	2,3	1,8	1,8	1,4
- Italia	-1,7	0,1	0,9	1,1	1,7	0,9
- Espainia	-1,7	1,4	3,6	3,2	3,0	2,6
- EAE	-1,7	1,6	3,0	3,3	2,9	2,8
Garatu gabeak	5,1	4,7	4,3	4,6	4,8	4,5
Txina	7,8	7,3	6,9	6,7	6,8	6,6
India	6,4	7,4	8,0	8,2	7,2	7,1
Errusia	1,8	0,7	-2,5	0,3	1,6	2,3
Brasil	3,0	0,5	-3,5	-3,3	1,1	1,1

Iturria: NDF (munduko ekonomia, Japonia eta Txina), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).

... zenbait arriskuri aurre egin behar izan arren


- AEB eta Txinaren arteko **merkataritza gerra**, Europar Batasun, Mexiko eta Kanadararen aurka hedatu zuela. Mehatxu eta erabaki bakoitzak finantza merkatuetan gorabeherak eragin zituen eta konfiantza globalaren giroa ozpindu zuen.
- **Finantzaziorako baldintzak gogortu** izana, bereziki Erreserba Federalaren erabakien ondorioz. AEBetako interes tasak urtean lau aldiz igo ziren 2,25%-2,50%ra heldu arte. Dolarraren balioa gorarazteak bereziki azaleratzen ari diren herrialdeak kaltetu zituen.
- **Petrolioaren salneurriaren** bilakaera. 86 dolarretara iritsi zen.
- **Politika ekonomikoarekin** lotuta dauden **ziurgabetasunak**, Europar Batasunean fokatuagoak: Brexitaren negoziatioetatik eratorri zen ezegonkortasuna, Italiaren eta Europar Batasunaren artean aurrekontuen atalean sortu diren tentsioak, Frantzian bizi zen jaka horien krisia, Espainiako zentsura-mozioa.
- Industria ekoizpenaren murrizketa, Alemanian bereziki, **Europar Batasunak ibilgailuen isuriez onartu zuen araudi berriak** automobil dieselen industriaren ondorioz.
- **Turkia eta Argentinaren** krisi ekonomikoa.

EAEko Ekonomia %2,8 hazi zen...

- **EAEko ekonomiak beste urtebete batez eman zion jarraipena** azken ziklo ekonomikoan jasotzen ari den **hazkunde biziko ibilbideari** eta 2018an, urteko batez bestekoan, %2,8ko gehikuntza tasa lortu zuen.
- Zenbaki hori **aurreko urtean eskuratutakoa baino hamarren bakar bat txikiagoa** da eta lau urte kateatu ditu jadanik %3,0aren inguruko balioak jasotzen
- Urteko tasa horietatik eratortzen den itxurazko egonkortasunak **ekonomiaren moteltze esanguratsua iradokitzen duen hiruhilekoko bilakaera bat** ezkutatzen du. Antzeko prozesu bat hauteman da munduko herrialde eta eremu ekonomiko nagusietan ere.

EAEko ekonomiaren hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat.

... eta krisiaren aurreko BPGa nabarmen gainditu

- Bost urte kateatu ditu ekonomia suspertzen eta bere BPG erreala nabarmen gainditu du krisiaren aurretik zeukana.
- Bere BPG erreala krisiaren aurretik zeukana baino zazpi puntu gorago kokatu du.

BPG errealaren bilakaera EAEn




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

EAEk EB15-arekin posizio erlatiboa mantendu du

- **EAEko biztanleko BPGak hazkunde erritmoa bizkortu zuen eta EB-15arekin bat egiteko bidea berreskuratzen** hasi zen.
- Hain zuzen ere, susperraldia nabarmen sendoagoa izan da eta **%2aren eta %3aren arteko hazkunde tasak eskuratu dira 2014tik 2018ra** doan garaian, **EB-15eko** gehikuntza tasak **%1aren eta %2aren artean** egotera mugatu ziren bitartean.

BPG biztanleko. EAP



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECoren datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Hazkundeak aurreko urteetako patroiarri eutsi zion

- Barne eskariak **pisu handiena** izan zuen; bi osagai nagusien emaitza onetan oinarritu zen. Orobat, **kapital eraketa gordinak** protagonismo handiagoa bereganatu zuen **kontsumoa** baino.
- Eta kanpo saldoak neutraltasunetik oso hurbil kokatu zelako. **Kanpo eskariak hamarren bakarra kendu zion BPGaren** gehikuntzari, bai esportazioak bai inportazioak %3,0 handitu zirelako.
- Sektoreen arabera, **eraikuntzak hobekuntza garbia** ezagutu zuen, zerbitzuek hazkunde erritmoa egonkortu zuten eta industria ahuldu zen.

EAEko taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Barneko azken kontsumoa	-1,1	1,9	3,1	3,0	2,9	2,4
Familien kontsumoko gastua	-0,9	2,3	3,3	3,3	3,0	2,6
Herri administrazioen kontsumoa	-1,8	0,7	2,1	1,8	2,4	1,7
Kapital eraketa gordina	-4,9	-0,2	3,8	5,5	3,3	4,1
Ekipamenduko ondasunak	-3,6	3,3	7,3	8,6	3,2	4,0
Gainontzeko inbertsioa	-5,6	-1,9	2,0	3,8	3,4	4,2
Barne eskaria	-2,0	1,5	3,2	3,6	3,0	2,8
Esportazioak	1,0	5,9	1,0	1,8	4,7	3,0
Inportazioak	0,4	5,5	1,4	2,2	4,8	3,0
BPG	-1,7	1,6	3,0	3,3	2,9	2,8
Lehen arloa	-3,1	-20,0	13,1	1,0	6,8	2,3
Industria	-2,8	2,2	3,1	4,2	3,1	2,1
Eraikuntza	-4,6	-1,7	1,1	0,2	3,8	4,3
Zerbitzuak	-1,0	1,7	3,5	2,8	2,7	2,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,5	1,9	5,0	3,6	4,0	2,8
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,7	2,6	1,5	2,4	2,2	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	-1,6	1,0	3,6	2,5	2,2	3,1
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	-1,7	1,4	3,3	3,0	2,9	2,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-1,6	3,8	0,2	6,8	2,8	2,7

Iturria: Eustat.

BPGtik harantz

- Biztanleko BPGa kritikatu da ongizatearen neurri partziala delako. Hori dela eta, beste proposamen batzuk agertu dira. Proposamen horietako bat Nazio Batuek aurkeztutako giza garapenaren indizea da.
- Bizi itxaropena, eskolatzeko urteak eta alfabetatze tasa hartzen dituzte kontuan BPGaz gain.
- **Beraren zenbatespenaren emaitzak hamabost herrialde aurreratuenen artean kokatzen du EAE adierazle horretan**

Giza garapenaren indizea

Postua		%	Postua		%
1	Norvegia	0,953	11	Danimarka	0,929
2	Suitza	0,944	12	Kanada	0,926
3	Australia	0,939	13	AEB	0,924
4	Irlanda	0,938	14	Euskadi	0,922
5	Alemania	0,936	15	Erresuma Batua	0,922
6	Islandia	0,935	16	Finlandia	0,920
7	Hong Kong, Txina (RAE)	0,933	17	Nueva Zeelanda	0,917
8	Suedia	0,933	18	Belgika	0,916
9	Singapur	0,932	19	Liechtenstein	0,916
10	Herbehereak	0,931	20	Japonia	0,909


Iturria: Nazio Batuen Garapen Egitaraua (NBGE). 2018ko Giza garapenaren txostena eta Eustat. Gizarte-adierazleak. GGI18. Euskadiren datuak behin-behinekoak dira.

BPGtik harantz


- Adierazle honek ongizatearekin lotuta dauden hamaika esparru hartzen ditu kontuan. ELGEk osatu du.
- **EAEk emaitza hobea lortu du osasunean, komunitatean eta seguritatean.**
- Emaitza **neurritsuak sarreretan** (errenta eskuragarri) eta **hiritar konpromisoan** (hauteskundeetan partaidetza). Enplegu arloan emaitza ere nahiko motela da.
- Nabarmentzen diren bi herrialdeak Australia eta Norvegia dira.

Eskualdeen ongizate indizea


Euskadi-Norvegia



Euskadi-Alemania



Euskadi-Espainia




Iturria: ELGE.

BPGtik harantz

- Pobreziaren arrisku tasa eta gizarte bazterketa adierazleak **EAE eta Nafarroa arrisku txikiena** duten autonomia erkidegoak direla egiaztatzen du.
- Era berean, Europako herrialdeekin alderatuta, garbi geratzen da **ez dagoela herrialderik EAEkoa baino pobreziaren arrisku tasa eta gizarte bazterketa indize txikiagoa duenik.**

Pobreziaren edo bazterketa arriskuan dagoen biztanleriaren tasa. 2018




(*) 2017ko datua. Elkarriketa egindako aurreko urteko errenta.
Iturria: Eurostat eta INE. 2020 Europa adierazleak.

BPGtik harantz

- Desberdintasuna neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleetako bi Gini indizea eta S80/S20 izenekoak dira. Azken horrek biztanleriaren %20 aberatsena eta %20 txiroena alderatzen ditu, lehena bigarrena baino zenbat aldiz gehiago jasotzen duen kalkulatzeko. Bi adierazleen kasuan, zenbaki txikiek gizarte berdinzalea dela eta, kontrako zentzuan, balio altuak desberdintasuneko zantzu garbitzat jotzen dira.
- EAEko Gini indizearen** informazio berrienak, 2018ko pobrezia eta gizarte ezberdintasunen inkestan (PGDI) kalkulatuak, **26,7an** kokatu zuen adierazle hori eta **Belgikak eta Finlandiak bakarrik hobetu zuten**.

Gini Indizea



(*) 2017ko datuak.

S80/S20 Indizea




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta gizarte-desberdintasunen inkesta eta Eurostat.

Lan merkatuak goranzko joera mantendu zuen

- Atzeraldiko urte zailetan **galdu zen enpleguaren zati handi bat berreskuratu da** jadanik.
- Oraingo guztizkoa 2008an zegoena baino **%4 txikiagoa** da oraindik. Diferentzia horrek esan nahi du lanaldi osoko 40.000 lanpostu inguru falta direla berreskuratzeko.
- Azken urteetako **egitura aldaketa** agerian geratzen da **enpleguaren** osaera sektoreka aztertuta, gaur egun **zerbitzuetako** jarduerak **pisu handiagoa** dutelako, urte horietan galdu ziren lanpostuak industriarenak eta eraikuntzarenak ziren bitartean.

Lanaldi osoko lanpostuak

Enplegua 2008=100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilita.

Langabezia tasak behera egin zuen berriro

- **Enpleguaren bizitasunari** esker, langabezia tasak behera egin zuen.
- BJAREN datuekin, zehatz mehatz, **langabezia tasa %10,3an** kokatu zen.
- **Langabezia tasaren jaitsierak antzeko bilakaera** erakutsi zuen **bi generoetan**. Beraz, emakumeen langabezia tasa 2017ko %12,0tik 2018ko %11,1era murriztu zen. Gizonen kasuan, berriz, %10,8tik %9,6ra gutxitu zen langabezia tasa.
- Analisia **adin taldearen arabera** egiten denean, agerian geratzen da **guztietan jaitsi zela langabezia tasa**, baina **alde handiak** daude kolektibo bakoitzean. Esate baterako, **25 urtetik beherako biztanleriak datu okerrean** aurkeztu zuten **%19,9ko langabezia tasa** jaso zuen


Langabezia tasaren bilakaera EAEn

Urte arteko aldakuntza tasak



Lan merkatuan ere nabarmendu ziren

- BJAren datuekin, eskaintzen duen **enpleguaren hazkundera** aurreko urteetan ez bezala **gizon landunengan oinarritu zen**, beraien aldakuntza tasa emakumeena baino puntu erdi bat altuagoa izan zelako (hurrenez hurren, %2,1 eta %1,6)
- **Enpleguaren** susperraldiak **mesedea egin** zien, neurri handi batean, **langile gazteenei**, urte arteko tasan %10,6ko gehikuntza eskuratu zutelako. Honen ondorioz, beraien partaidetza tasa eta enplegu tasa igo ziren. Zehatz-mehatz kontatuta, **enplegu tasak azken zazpi urteko emaitzarik gorena izan zuen (%20,8)**.
- **Goi mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen portzentajea** Europako altuenetako bat da, 2018an, batez beste, **%57,1**era iritsi zelako, Europa 2020 estrategian erreferentziazat hartu zen %40aren oso gainetik dagoela.
- Lanbidek **2014an lizentziatu ziren unibertsitateko ikasleak lan munduan nola txertatu ziren** jakiteko egin zuen inkestaren arabera, promozio hartako **%23k** ez zeukan beraren ikasketei zegokien lanpostu bat. Beraz, pertsonak horiek gehiegizko kualifikazioa zuten okupazio jakin hori behar bezala egiteko.



Lan merkatuan ere nabarmen


- **Industriako enpresetarako** okupazio eskarian, **gehien eskatzen diren perfilak Lanbide Heziketako** prestakuntza zikloekin lotura dutenak dira.
- **Goi mailako ikasketak amaitu zituzten** lau pertsonatatik hiruk lana daukate eta **beren langabezia tasak ia ez du gainditzen %6ko langa**, iazko langabezia tasa orokorra, urteko batez bestekoan, %10ean egon zen bitartean. Era berean, biztanleria aktiboaren erdia baino gehiago (%53,6) dira.
- **Enpleguaren kalitateari** dagokionez:
 - **Behin-behinekotasun tasa %30,7ra** igo zen, azken urteetako baliorik gorena jasota eta EB-28 osatzen duten herrialdeetan jaso zena luze bikoiztuz.
 - Hobetsi gabeko **lanaldi partzialaren** erabilera. EAEn, lanaldi mota hori, izan nahita aukeratua edo gogoz kontra, %19,0ra iritsi zen 2014an eta ekonomiaren susperraldia hasi zenean, beherantz egin zuen, 2018an, batez beste, %16,3an kokatu arte. Estatuan, oro har, antzeko joera bizi zen, baina tasa txikiagoa da (%14,7).

Aukera gehiago daude enplegua lortzeko


- 2015ean hasitako susperraldi ekonomikoaren ondorioz, **langabezia jaitsi** zen eta **lanpostu hutsen kopurua igo zen**.
- Enpresek eskaintako **lanpostu huts bakoitzeko 20 lagunetara** moteldu zen.

Langabezian dauden lagun kopurua eskaintako lanpostu bakoitzeko

Euskadi



Espainia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Lanbide eta INEn datuak erabilia.

Prezioek ez dute nabaritu ekonomiaren bizitasuna

- **Prezioak energiaren portaerak baldintzatu** zituen berriro. Honek urteko erdiko hilabeteetan gora egin zuen, baina urte amaieran hazkunde horiek apaldu ziren.
- **KPI indizearen** urteko batez bestekoa **%1,6a** izan zen 2018an. Hau da, aurreko urtean jasotako balioaren aldean lau hamarrenetan gutxitu zuen bere aldakuntza tasa.
- **Azpiko inflazioak** nahiko **bilakaera neurritsua** erakutsi zuen 2018an zehar eta urte amaieran beheranzko erregistroak ere jaso zituen.

KPIren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: INE.

Batez besteko soldatak hobetu ziren...

- **Batez besteko soldataren hobekuntza antzekoa izan zen emakumeentzat eta gizonentzat.** Hain zuzen ere, 2008tik 2017ra bitartean, emakume baten soldata, batez beste, %11,0 igo da eta gizon batena, berriz, %11,9. Bi generoetan gauzatu zen gehikuntza ehunekoa antzekoa izateak (gizonena zertxobait handiagoa izan da) adierazten du epealdiaren hasieran zegoen **soldata arrakala portzentaje esanguratsuan zabaldu dela.**
- **Gizon baten eta emakume baten soldaten arteko aldea,** batez beste, 6.500 eurokoa zen 2008an eta 7.450 euroetara igo zen diru kopuru hori 2017an.
- **Orduko soldatan,** berriz, **arrakala gutxitu egin da. Itxurazko kontraesan** horren azpian genero bakoitzak **lan egindako ordu kopuruaren bilakaera dago.** Zehatz-mehatz adierazita, gizonen lan jardunaldia ia ez da ezer laburtu 2008tik 2017ra doan hamarraldian, baina emakumeenak, ordurako lanaldi laburragoa baitzuten, oso murrizketa nabarmena ezagutu du epealdi horretan

Soldataren bilakaera




Iturria: INE. Soldaten egitura.

...baina ez da langile kolektibo guztietara zabaldu


- **10 pertzentilak ia ez du ezer hobetu bere egoera azken bederatzi urtekoan.** Izan ere, 2016 arte, talde horren soldata 2008an jasotzen zutena baino nabarmen txikiagoa zen.
- Soldata txikiena duten **emakumeena** oraindik urrun zegoen **2008an** jaso zuten **batez besteko soldata** berreskuratzetik.
- **90 pertzentilak** epealdi horretan **%10,9 handitu du** bere soldata eta **soldata arrakala murriztea** lortu zuen.
- **Emakumeak goi mailako ikasketak egin** dituen heinean, okupazio altuagoko enpleguak lortzeko aukera handiagoak izan ditu, soldata eta bilakaera hobea dituztenak
- **Okupazio baxuetan** lan egiten duten **emakumeek 2008an** jasotzen zuten **batez besteko soldata ez dute** oraindik **berreskuratu**.

Soldataren bilakaera

Pertzentil 10



Pertzentil 90




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Orduko lan kostuen igoera neurritsua

- EAEn, orduko lan kostuek igoera neurritsua izan zuten 2007-2018 epealdian, gainontzeko herrialdeekin alderatuta.
- Zehatz-mehatz azalduta, **epealdi horretan urteko batez besteko hazkunde tasa %1,5era** iritsi zen. **2018ko hazkunde tasa %0,7 izan zen.** Datu horrek adierazten du **batez besteko azken kostua 25,9 eurokoa zela ordu bakoitzeko.** Orduko kostu hori eta **EB-15ekoa** antzekoak ziren, eremu horretan **25,1 eurotan** kokatu zelako.
- Eraitza horiek erakusten dute Europar Batasunaren barruan **kostuak bateratzeko prozesu bat** dagoela, nahiz eta oraindik **alde handiak** egon termino absolutuetan, zeren eta hazkunde horrekin **orduko kostua Txekian**, 2018an, 22,6 eurotan baitzegoen (2007an 15,3 eurotan zegoen)

Lan kostu nominalak orduko




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Produktibitate altua

- EAEko **produktibitatea, lan egindako orduetan** neurtuta, **%0,8** igo zen, 2017an lortu zena baino hiru hamarren txikiagoa eta 42 eurotik gorako balio bat eskuratu du.
- **Produktibitatea langile bakoitzeko %1,3** hazi zen, EB28 (%0,8), EB15 (%0,7) eta Espainiak (%0,3) lortutakoak baino altuagoa.

Produktibitatea lan ordu bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzean eguneratuta).

Eta LKUn EAEk ia ez du inolako hazkunderik izan

- **LKUn, 2007-2018 epealdian** zehar hautematen da **EAEk ia ez duela inolako hazkunderik izan**, erreferentzia europar nagusietan gehikuntzak jaso ziren bitartean
- Horrek esan nahi du EAEko ekonomiak **lehiakortasuna irabazi** duela urte horietan Europako batez bestekoaren aldean.

Lan kostu unitario nominala orduko




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta. (2019ko maiatzaren eguneratuta).

Zergen diru bilketa kantitaterik gorenetan

- **2018ko** ekitaldia amaitutakoan **diru sarrerek inoizko kantitaterik gorena** jaso zuten, **14.981.545 mila eurora** iritsita. Urte arteko gehikuntza **%3,5** izan zen, baina hasieran aurreikusitako diru kopurua %4,1ean gainditu zuen.
- **2017an BEZaren Doikuntzaren** azalpenean 599,8 milioi euroko kopuru osoa kontuan hartzen ez bada, **2018ko** diru bilketaren aldakuntza tasa **%8ra** iristen da.
- Portaera hobea izan dute berriro zuzeneko zergek (%10,2) zeharkakoek (%6,3) baino.
- Itaundutako zergen **presio fiskala %19,6an** mantendu zen. Honela azken urteetako goranzko joera moteldu zen.

Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala



Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

BEZaren eta PFEZren arteko aldea estutu zen

- **BEZaren** atzerakada azpimarratu behar da, 2017ko %8,2tik 2018ko %7,6ra. Jaitsiera hori ulertzeko, gogoratu behar da 2017an BEZaren doikuntza positiboa egin zela kupoari buruzko akordioen ondorioz, urte hartako diru bilketa oso nabarmen goraraziz. Hala ere, bere **ekarpena handiena** izan zen.
- **BEZaren eta PFEZren arteko aldea estutu zen.**
- **Sozietateen gaineko zergak** 2017an hasitako goranzko joera sendotu zuen eta bere ekarpena **BPGren %1,9a** izan zen.

Zerga nagusien diru-bilketa

% BPG


	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
PFEZ	6,0	6,1	6,4	6,6	6,6	6,6	6,8	6,8	7,0	7,1
Sozietateen g/ zerga	2,1	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7	1,5	1,4	1,5	1,9
BEZa	5,4	6,8	6,1	6,1	6,6	7,2	7,2	7,0	8,2	7,6
Guztira	16,6	17,6	17,1	17,3	18,1	18,6	18,4	18,2	19,6	19,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten eta Aurrekontu Egikaritzaren Estatistiken datuak erabilia.

EAEko administrazioen zikloaren posizioa

- Zortzi urtez jarraian etengabeko defizitak jaso eta gero, **EAEko administrazioek superabita** lortu zuten. Hala ere, ibilbide horretan **administrazio bakoitzak aurrekontu saldoen norabide ezberdina** erakutsi zuen.
- Izan ere, eta bederatzi ekitalditan saldo negatiboak jaso ondoren, **Eusko Jaurlaritzak superabita berreskuratu zuen 2017an eta berdin amaitu zuen 2018an ere. Foru aldundiek, ordea, 2009an eta 2010ean bakarrik izan zuten defizita.**
- Beste aldetik, **udalen multzoak defizita** aurkeztu zuen **2009tik 2011ra** doazen hiru urteetan, **2012an bertan saldo positiboak** berreskuratzeko.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu saldoaren banaketa 1987-2018




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

Politika publikoek aldaketa esanguratsuak ezagutu dituzte

- Azken hamar urteetan **zor publikoa ordaintzera** bideratutako gastuak eta pertsonen **ongizatearekin lotuago dauden atalek pisua irabazi dute.**
- **Diru sarrerak bermatzeko errentak** (DSBE) izan duen gehikuntza azpimarratu behar da, ekonomiak hobera egin duen arren, BPGaren terminoetan **pisua bikoiztu** duelako.
- Biztanleriaren zahartzea nabaria da aurrekontuetan, **osasun arloari** zuzendu den **dirua handituz.**
- **Babes zibilaren eta azpiegituren funtzioek pisua galdu zuten.**

Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera. 2007-2018. BPGaren %



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta.

Zorpetze maila berriro jaitsi zen

- **2001etik ez ziren hain zorpetze maila bazuak** lortzen
- Hain zuzen ere, 2017an, kredituak **BPGaren %89,4ra** iritsi ziren, aurreko urtean jaso zen sei puntu eta sei hamarren baino are beherago.
- Murrizketa honen oinarrian, familien zorpetze maila txikiagoa dago, 2008an izan zuen maximoaren %28,2 beherago.

Kredituen bilakaera

	1995	2000	2005	2009	2010	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BPGaren%												
Arlo pribatua	60,9	81,5	105,7	124,5	125,2	114,1	105,3	95,2	92,6	90,6	87,0	80,0
Arlo publikoa	4,6	2,4	2,3	4,2	5,4	6,5	7,5	9,1	9,7	9,8	9,0	9,3
Guztira	65,6	83,8	108,0	128,7	130,5	120,6	112,8	104,2	102,2	100,5	96,0	89,4
Hazkunde tasak												
Arlo pribatua	4,3	17,9	18,9	-5,0	2,7	-8,5	-8,9	-7,6	0,4	1,8	-0,5	-4,6
Arlo publikoa	11,5	-2,1	1,0	35,9	29,2	10,8	13,7	23,6	10,5	5,4	-5,5	8,1
Guztira	4,8	17,3	18,4	-4,1	3,6	-7,6	-7,7	-5,5	1,2	2,2	-1,0	-3,4

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuen igoera ahula

- Gordailuen kopurua 81.157 milioi eurotan kokatu zen lehenengo aldiz, **2017 urtekoa baino %2,3 altuago**.
- **Gordailu pribatuetan oinarrituta (0,9%)**, gordailu ageri eta aurrezkiei esker, %6,6 igo zirela.
- **Eperako gordailuak**, berriz, **berriro murriztu ziren**. Finantza produktu honek **ez ditu 2014tik hazkunde positiboak lortu**.

Gordailuen bilakaera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2008-2018 arteko aldea	
							Mila €	Tasak
Guztira	2,5	-2,0	3,3	1,9	4,7	2,3	5.174	6,8
Gordailu publikoak	5,0	6,1	3,0	-0,2	11,2	36,6	-1.326	-23,1
Gordailu pribatuak	2,4	-2,3	3,3	2,0	4,4	0,9	6.500	9,2
Ageria eta aurrezkia	4,6	7,0	18,2	15,4	20,9	6,6	35.062	129,9
Epera	0,5	-10,3	-12,0	-16,6	-27,3	-17,3	28.562	-65,5

Iturria: Espainiako Bankua.

Eskerrik asko zuen arretagatik

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA